

Balorezko proposamena:

-Kuantitatiboa: adibidez, prezioa:

- Kualitatiboa: adibidez, diseinua:

Gure produktua ekoizterakoan kontuan hartuko dugu, bai kalitatea bai kantitatea, hau da, ez diogu bakarrik garrantzia emango kantitateari, kalitateari baita ere. Gure helburua kantitate handiko eta kalitate handiko produktuak ekoiztea da. Kalitate oneko produktua bada gehiago salduko da, hau da, ahalik eta kalitate gehien eduki ahalik eta gehien salduko da, horregaitik kalitate ona egingo dugu kantitate handiak ekoiztu ahal izateko.

-Berritasuna: Karroa normala izango da, betiko karroen antzekoa, gure produktuaren berritasuna tableta eta tabletaren funtzionamenduak izango dira. Ez da izango erosketarako karro arrunt bat, informatika arloan oso azkarra izango da, erraztasun askorekin.

- Prestazioak: Enpresa bati salduko diogu gure ideia, haiek ahalik eta multinazional gehienetara biliko diete gure produktua, gure helburua, munduan zehar zabaltzea da, ez bakarrik Euskal Herrian, ahalik eta lurralde gehiagori bidali ahalik eta etekin gehiago aterako ditugu.

- Pertsonalizazioa: Gure ideian aplikazioa eta ideia dira pertsonalizatutakoak. Karroa existitzen da eta tableta baita ere, baina tabletan sartuko dugun aplikazioa ez da existitzen, horrek esan nahi du, guk asmatu eta pertsonalizatuko dugula, app hori egiteko informatikari batzuekin harremanetan jarriko gara, eta haiek gure ideia aurrera eramango dute.

-Lana erraztea: Lana erraztuko dugu materiala berrerabiliz, guk eginda dauden karroak erabiliko ditugu, karro empresekin harremanetan jartzerakoan haiek dituzten karroen laurdena eskatuko diegu, laurdenarekin gure produktua aurrera eramango dugu, bestalde, tabletak Lenovvo markari erosiko dizkiogu, tabletak ez daukatelako kostu handirik eta onak direlako, honekin gure produktua sortzea ez da izango hain zaila.

- Diseinua: Guk egindako diseinua da, karro bat jada eginda dagoena, hau da, guk erosketako karro bat erosiko dugu eta tablet bat konektatut egingo dugu karroaren atzeko goiko partean. Gainera tableta aplikazio konkretu bat izango du, diseinua guk pentsatu dugu, karro normal bat eta tablet simple batean oinarrituta.

-Marka/Estatusa: Karroa ez dauka markarik, egindako karroak berrerabiliko ditugulako eta tablet marka lenovorekin adostasun batera heltzen saiatuko gara haien marka erabili ahal izateko, haien marka aztertu eta beste batzuekin konparatu

eta gero konturatu gara elektronikan oso ona dela eta gainera ez duela asko kostatzen, horregaitik erabaki dugu Lenovvo hartzea eta ez beste marka bat.

-**Prezioa:** Prezioa tabletaren balioaren arabera eta fabrikazio kostuaren arabera izango da, karroa berrerabiliko dugunez ez du kosturik izango. Jarritako prezioa ez da aldatuko inoiz, prezio finko bat edukiko du, beti material bera erabiliko dugulako.

- **Arriskuen murrizketa:** arrisku bat izan ahal da, gure ideia beste enpresa batek lapurtzea, hori ekiditeko gure ideia erregistratuko dugu, honela guk gure produktuaren kontrola izango dugu. Ideia bat erregistratu eta gero ezin dizute lapurtu, beste baten batek saiatzen bada, harrapatuko lukete eta salatuko genuke.

- **Eskuragarritasuna:** gure eskura izango ditugu tabletak eta karroak, baina gero muntatzeko orduan beste informatika enpresek egin beharko dute, aplikazioa egiteko eskuragarri izango dugu informatika talde bat, haiek programatuko dute aplikazioa eta hori erraztuko digu guri lana.

- **Erabilerraztasuna:** gure produktuak eskainiko dituen erraztasunak; erosketak egitera joaten garenean zenbat diru gastatu nahi dugun jarriko dugu eta karritoaren pantailan agertuko dira produktu bakoitzaren prezioa eta beste marka batzuekin egindako kalitate eta prezio konparaketa, orduan jarritako dirua baino gehiago kontzartzen badu karroak abisu bat emango digu, "pipi" zarata eginez.